## KULTURA SAILA

## 4046

EBAZPENA, 2007ko maiatzaren 15ekoa, Kirol zuzendariarena, Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren Estatutuen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen duena.

Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntza EAEko Kirol-Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1988ko maiatzaren 18an, 147. zenbakiarekin. Federazioaren estatutuak berriro erredaktatu dira orain.

Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak 2007ko otsailaren 11n egindako Ezohiko Batzar Orokorrean bere estatutuak onartzeko erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren Estatutuen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea.

*Bigarrena.–* Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

*Hirugarrena.–* Ebazpen hau eta bere eranskina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

*Laugarrena.–* Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta, bere aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kirol zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 15a.

Kirol zuzendaria,
JOSE RAMON GARAI ITURRIONDOBEITIA.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## 4046

RESOLUCIÓN de 15 de mayo de 2007, del Director de Deportes, por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación de los Estatutos de la Federación Vasca de Tiro con Arco.

A la vista de la nueva redacción dada a los Estatutos de la Federación Vasca de Tiro con Arco, inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 18-05-1988 con el número 147.

Resultando que la Asamblea General Extraordinaria de la Federación Vasca de Tiro con Arco, celebrada el 11 de febrero de 2007, aprobó la modificación de los Estatutos y que tal aprobación se ha acreditado documentalmente.

Considerando que la modificación de los estatutos es conforme con los preceptos del Decreto 16/2006, de 31 de enero y de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte de Euskadi.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

RESUELVO:

*Primero.–* Aprobar e inscribir en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación estatutaria de la Federación Vasca Tiro con Arco.

*Segundo.–* Notifíquese en el plazo legal establecido.

*Tercero.–* Publicar la presente resolución y el anexo en el Boletín Oficial de País Vasco.

*Cuarto.–* Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer, con carácter potestativo, recurso de reposición ante el Director de Deportes, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de su notificación, o bien, se podrá interponer contra la misma, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de mayo de 2007.

El Director de Deportes,
JOSE RAMON GARAI ITURRIONDOBEITIA.

## ERANSKINA

## EUSKADIKO ARKU TIROKETA FEDERAKUNTZAKO ESTATUTUAK

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntza nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena duen irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da. Kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak eta kirol elkarteak biltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, Arku Tiroketa modalitatea praktikatu, sustatu eta antolatzeko. Kirol modalitatea ondorengo diziplinek osatzen dute:

a) Arku tiroa aire zabalean.

b) Arku tiroa aretoan.

c) Landa zabaleko ibilbidea.

d) Basoko ibilbidea.

e) Lur gainean.

f) Eskietan.

g) Distantzia handikoa.

h) Akademikoa.

i) Arku Lasterketa (Run Archery)

*2. artikulua.*– Honako hauek arautzen dute Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntza: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak; Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak; aipatu legeari dagozkion gainerako garapen-xedapenek; estatutu eta erregelamendu bereziek; eta bere organoek baliozkotasunez hartutako hitzarmenek.

*3. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren helbidea: Anoeta pasealekua, 24, Txuri Urdin eraikina, 20014 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

*4. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak kirol modalitateari dagozkion jarduera eta lehiaketa ofizialak sustatu, kalifikatu, baimendu, agindu eta antolatzen ditu EAEn.

*5. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak bere kirol modalitateari dagokion euskal kirol federatuaren ordezkaritza du Estatuan eta nazioartean.

*6. artikulua.*– Federazioak, bere eginkizunak betetzeko, ondorengo funtzioak izango ditu:

a) Estatuan eta nazioartean kirol modalitatea ordezkatzea, eta, hala dagokionean, federazioa beste erakunde batzuetan txertatzeko araubidea zehaztea.

b) Federazioa osatzen duten lurralde federazioen jarduera koordinatzea.

## ANEXO

## ESTATUTOS DE LA FEDERACIÓN VASCA DE TIRO CON ARCO

## TÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– La Federación Vasca de Tiro con Arco es la entidad privada sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica y capacidad de obrar, que reúne a deportistas, técnicas y técnicos, juezas y jueces, clubes y agrupaciones deportivas para la práctica, promoción y organización de la modalidad de Tiro con Arco en la Comunidad Autónoma del País Vasco. La modalidad deportiva se compone de las siguientes disciplinas:

a) Tiro con arco diana al aire libre.

b) Tiro con arco en sala.

c) Recorrido de campo.

d) Recorrido de bosque.

e) Tiro con arco sobre esquí.

f) Tiro con arco sobre suelo.

g) Larga distancia.

h) Académico.

i) Carrera Arco (Run Archery).

*Artículo 2.*– La Federación Vasca de Tiro con Arco se rige por la Ley 14/1998 de 11 de junio, del Deporte del País Vasco; por el Decreto 16/2006, de 31 de enero, de federaciones deportivas del País Vasco, y demás disposiciones de desarrollo de la Ley; por los presentes estatutos y reglamentos específicos y por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos propios.

*Artículo 3.*– La Federación Vasca de Tiro con Arco tiene su domicilio en Donostia-San Sebastián, Paseo Anoeta n.º 24, edificio Txuri-Urdiñ, código postal: 20014.

*Artículo 4.*– La Federación Vasca de Tiro con Arco impulsa, califica, autoriza, ordena y organiza las actividades y competiciones oficiales de la modalidad deportiva en el ámbito autonómico.

*Artículo 5.*– La Federación Vasca de Tiro con Arco ostenta la representación del deporte federado vasco correspondiente a su modalidad deportiva en el ámbito estatal e internacional.

*Artículo 6.*– Para el cumplimiento de sus fines la federación ejercerá las siguientes funciones:

a) Ostentar la representación de la modalidad deportiva en el ámbito estatal e internacional y definir, en su caso, el régimen de adhesión de la federación a otras entidades.

b) Coordinar la actividad de las federaciones territoriales que la integran.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan kirol modalitatearen lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea.

d) Parte hartzeko eta lehiatzeko arau propioak ezartzea; betiere bere eremuaz gaindiko lurraldeko federazioek ezarritako arauak aintzat hartuz, hala dagokionean.

e) Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan Federazioko estamentu guztien partaidetza antolatzea.

f) Kirol modalitatearen federazio lizentziak ematea.

g) Arku Tiroketaren jardunean sortutako kirol gatazken berri izan eta ebaztea, betiere organo judizialen eta arbitraje-organoen eskumenak kontuan hartuz.

h) Federazioaren arauak betetzeaz arduratzea eta, horiei jarraiki, diziplina ahalmena burutzea.

i) Kirolean debekatuta dauden substantzia, talde farmakologiko eta arauz kanpoko metodoen erabilera prebenitu, kontrolatu eta zigortzen Administrazioarekin elkarlanean aritzea, horretarako zehaztuko den araudiari jarraiki.

j) Dagokion kirol modalitateko teknikariak eta epaileak prestatzea, helburu horri begira ezarriko den araudiaren arabera.

k) Baliabide ekonomiko propioen destinoa eta izendapena zehaztea. Federazioaren jarduerarako beste erakunde batzuek transferitzen dizkioten baliabideak kudeatzea; eta bere baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla kontrolatzea.

l) Lurralde federazioei eta Federazioari atxikitako klub eta kirol elkarteentzako diru-laguntzak esleitu eta horien erabilera kontrolatzea.

m) EAEko administrazioekin elkarlanean aritzea kirola sustatzen eta, batik bat, 14/1998 Legeak federazioei zuzenean ezartzen dizkien lankidetza eta aholkularitzako eginkizunetan.

n) Federazioaren estatutuak eta kirol araudiak gertatzea.

ñ) Federazioaren kirol modalitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea dagokion lurralde eremuan.

o) Eta, oro har, dagokion kirol modalitatearen jarduera sustatu eta hobetzeko komeni den guztia ezartzea.

7. ***artikulua.***– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak lurralde federazioekin batera garatuko ditu eginkizunak.

8. ***artikulua.***– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak ez du inoiz diskriminatuko arraza, sexu, erlijio, iritzi, sinesmen eta beste egoera pertsonal nahiz sozialengatik.

c) Organizar las competiciones oficiales y actividades de la modalidad deportiva en el ámbito comunitario.

d) Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

e) Instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones estatales e internacionales.

f) Expedir las licencias federativas de su modalidad deportiva.

g) Conocer y resolver los conflictos deportivos que se originen en el desarrollo de su actividad, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

h) Velar por el cumplimiento de sus normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.

i) Colaborar con la Administración en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

j) Formar las y los técnicos y jueces de la modalidad deportiva conforme a la normativa que al efecto se determine.

k) Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos sus recursos.

l) Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que pudiera conceder a las federaciones territoriales y a los clubes y agrupaciones deportivas adscritos a ella.

m) Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley 14/1998 atribuye directamente a las federaciones.

n) Elaborar sus estatutos y reglamentos deportivos.

ñ) Promover y, en la medida de lo posible, garantizar la igualdad de mujeres y hombres en la práctica de su modalidad deportiva en su ámbito territorial.

o) Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora de la práctica de su modalidad deportiva.

***Artículo*** *7.*– La Federación Vasca de Tiro con Arco desarrollará sus funciones en coordinación con sus federaciones territoriales.

***Artículo*** *8.*– En el seno de la Federación Vasca de Tiro con Arco no se permitirá discriminación alguna por razón de raza, sexo, religión, opiniones y creencias, o cualquier otra circunstancia personal o social.

## II. TITULUA

## FEDERAZIOKO KIDE EGITEA. LIZENTZIAK

*9. artikulua.–* 1.– Federazio lizentzia agiri pertsonal eta besterenezina da, zeinak titularrari Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzako kide izaera eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko ahalmena ematen dion, betiere lehiaketa bakoitzean dauden arauei jarraiki.

Estamentu guztiek ezinbesteko baldintza dute federazio lizentzia edukitzea, bai Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak eta bere lurralde federazioek, eta bai lurraldez gaindiko beste edozein erakundek antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko.

Federazio lizentzia duten estamentu guztiek Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak bere lehiaketetarako ezartzen dituen arau, erregelamendu eta xedapen guztiak bete beharko dituzte.

Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak estamentu motak, eta horien eginkizunak eta baldintzak zehaztuko ditu erregelamenduaren bidez.

2.– Federakuntza lizentzia bakarra izango da Euskadin, eta, horren bidez, titularra bai euskal federakuntzari eta bai dagokion lurralde federakuntzari atxikita egongo da.

3.– Aldi berean bi federakuntzatako kide izatea dagokion baimena lortzearen bidez gauzatzen da.

4.– Euskadiko federakuntzak eta lurralde federakuntzek elkarrekin adostu ahal dute borondatezko harpidetza duen, eta ofiziala izango ez den txartela sortzea, zeinen barne ez baitago lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea, ezta titularra federakuntza honetako kide izateko ere. Txartel horrek bere titularra bereziki arkua erosi eta garraiatzeko gaituko du.

5.– Federakuntza honek emandako lizentziak autonomia erkidegoaz gaindiko eremuko lehiaketetan parte hartzeko gaituko ditu bere titularra, indarrean dagoen araudiak ezarritako kasu eta baldintzetan.

*10. artikulua.–* 1.– Euskal Autonomia Erkidegoan Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak du dagokion kirol modalitateko federakuntza lizentziak emateko eskumena, eta lurralde federakuntzak horiek bideratzeko eskumena duten erakundeak dira.

2.– Federakuntza honek, lizentziak emateko duen eskumenaren babesean, honakoak ezarriko ditu araudiari jarraiki: lizentzien agiri, kirol eta ekonomia erregimena, bere eskubide eta betebeharrak, iraupena, indarrean sartzeko data, kategoriak, kuotak, prozedura, formatua eta gainerako antzeko kontuak. Funtzio horrek barne hartuko du halaber nahitaezko arrisku-estaldurak bermatzen dituzten aseguru kolektiboak kontratatzea.

## TÍTULO II

## INTEGRACIÓN FEDERATIVA. LICENCIAS

*Artículo 9.–* 1.– La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular la condición de miembro de la Federación Vasca de Tiro con Arco y le habilita para participar en sus competiciones oficiales siempre con arreglo a las reglas que en cada caso rijan las mismas.

Todos los estamentos deberán estar en posesión de la licencia federativa como requisito indispensable para poder participar en competiciones oficiales organizadas tanto por la Federación Vasca de Tiro con Arco y sus Territoriales como por cualquier otro organismo de índole supraterritorial.

Todos los estamentos con licencia federativa se someterán a las normas, reglamentos y disposiciones que establezca la Federación Vasca de Tiro con Arco, en lo relativo a sus competiciones.

La Federación Vasca de Tiro con Arco determinará reglamentariamente las clases, cometidos y condiciones de los diferentes estamentos.

2.– La licencia federativa será única en el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a la federación vasca y a la correspondiente federación territorial.

3.– La integración simultánea en ambas federaciones se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

4.– La federación vasca podrá crear, de común acuerdo con las federaciones territoriales, una tarjeta de carácter no oficial y de suscripción voluntaria, que no conllevará el derecho a participar en competición oficial alguna y que no supondrá la integración en esta federación. Tal tarjeta, en su caso, especialmente habilitará a su titular para la compra y transporte del arco.

5.– La licencia que emita esta federación habilitará a su titular para participar en competiciones oficiales de ámbito territorial superior en los casos y condiciones que establezca la normativa vigente.

*Artículo 10.–* 1.– La Federación Vasca de Tiro con Arco es la entidad competente en la Comunidad Autónoma del País Vasco para emitir las licencias federativas de su modalidad deportiva y las federaciones territoriales serán las entidades competentes para tramitarlas.

2.– Esta federación, al amparo de su competencia para la emisión de licencias, establecerá reglamentariamente el régimen documental, deportivo y económico de las licencias, sus derechos y obligaciones, duración, comienzo de vigencia, categorías, cuotas, procedimiento, formato y demás cuestiones análogas. Tal función comprenderá también la contratación de los seguros colectivos que garanticen las coberturas obligatorias de riesgos.

3.– Euskal federakuntzak borondatezko kuota gehigarria jaso ahal izango du federatuengandik, zerbitzu eta jarduera jakin batzuk finantzatzeko.

4.– Federakuntzak lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia lurralde federakuntzen artean banatuko du Batzar Nagusiak onartutako terminoen arabera, eta urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 24.5 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Zenbateko garbi hori era honetan lortuko da: zenbateko gordinari aseguruei eta lurralde eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuotei dagozkien zenbatekoak kenduz.

*11. artikulua.*– 1.– Federakuntzaren Batzar Nagusiak onartuko ditu lizentzien formatua eta edukia, eta lizentzia horietan, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

2.– Lizentziak komunikazioaren teknologiak era egokian aprobetxatzeko moduko baldintza teknikoak dituen euskarri batean, eta Eusko Jaurlaritzak euskarri horiei dagokionean onartutako ezaugarri teknikoekin bat etorriaz igorriko dira.

3.– Lizentziaren agirian ondorengo kontzeptuak jasoko dira:

a) Nahitaezko aseguruen kuota.

b) Euskal federakuntzarentzako kuota: zenbateko garbiaren % 65 izango da.

c) Lurraldeko federakuntzarentzako kuota: zenbateko garbiaren % 35 izango da.

d) Federakuntzaren eremuaz gaindiko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala dagokionean.

4.– Lizentziaren agirian, halaber, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 25.4 artikuluan ezarritako edukiak jasoko dira.

*12. artikulua.*– Federakuntzak igortzen dituen lizentzien iraupena urtebetekoa izango da, hots, denboraldi osorako.

*13. artikulua.*– Federakuntzak pertsona federatu berak izan ditzakeen lizentzien bateragarritasunari dagozkion hipotesi, baldintza eta eraginak zehaztuko ditu Lizentzien Arautegian.

III. TITULUA

GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK

*14. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzan ondorengo gobernu, administrazio eta ordezkaritza organoak egongo dira:

a) Batzar Nagusia deitutako gobernu organoa.

b) Zuzendaritza Batzordea deitutako elkargoa den administrazio-organoa.

3.– La federación vasca podrá percibir de sus federados y federadas una cuota adicional de carácter voluntario para la financiación de determinados servicios y actividades.

4.– La federación repartirá con cada federación territorial el importe neto de cada licencia en los términos que apruebe la Asamblea General y de acuerdo con lo establecido en el artículo 24.5 del Decreto 16/2006, de 31 de enero. Dicho importe neto será el resultante de minorar al importe bruto los importes correspondientes a seguros y a las cuotas para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

*Artículo 11.*– 1.– El formato y contenido de las licencias serán aprobados por la Asamblea General de la federación y en dichas licencias deberán emplearse necesariamente las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Las licencias se emitirán en un soporte que cuente con unas condiciones técnicas que permitan un adecuado aprovechamiento de las tecnologías de la comunicación y de acuerdo con las especificaciones técnicas de dichos soportes que apruebe el Gobierno Vasco.

3.– En el documento de la licencia se consignarán los siguientes conceptos económicos:

a) Cuota de los seguros obligatorios.

b) Cuota destinada a la federación vasca, que ascenderá al 65% del importe neto.

c) Cuota destinada a la federación territorial, que ascenderá al 35% del importe neto.

d) Cuota para participar, en su caso, en competiciones oficiales de ámbito territorial superior.

4.– En el documento de la licencia se consignarán también los contenidos establecidos en el artículo 25.4 del Decreto 16/2006, de 31 de enero.

*Artículo 12.*– Las licencias que emita la federación serán de duración anual, es decir, para toda la temporada.

*Artículo 13.*– La federación determinará en el Reglamento de Licencias los supuestos, condiciones y efectos de la compatibilidad de las licencias que pueda ostentar una misma persona federada.

TÍTULO III

ÓRGANOS DE GOBIERNO, ADMINISTRACIÓN Y REPRESENTACIÓN

*Artículo 14.*– En la Federación Vasca de Tiro con Arco existirán los siguientes órganos de gobierno, administración y representación:

a) Un órgano de gobierno, denominado Asamblea General.

b) Un órgano de administración colegiado denominado Junta Directiva.

c) Batzorde Betearazlea deitutako administrazio organoa.

d) Ordezkaritza organoa zeinen titularra federakuntzako lehendakaria izango baita.

I. KAPITULUA
BATZAR NAGUSIA

*15. artikulua.–* Batzar Nagusia federakuntzaren gobernu organo nagusia da, eta, gutxienez, ondorengo funtzioak bete beharko ditu:

a) Lehendakari jaun/anderea nahiz Zuzendaritza Batzordea hautatzea.

b) Federakuntzako kontuak eta aurrekontuak onartzea.

c) Estatutuak onartzea edo aldatzea.

d) Zentsura-mozioa onartzea.

e) Lehiaketa ofizialen egutegia onartzea.

f) Federakuntzaren jarduera-plana onartzea.

g) Federakuntzaren arautegiak onartzea edo aldatzea.

h) Ondasun higiezinak izatea, besterentzea eta zergapetzea; maileguak adostea, eta zorraren edo ondare zati alikuotaren tituluak jaulkitzea, estatutu hauetan xedatutakoari jarraiki.

i) Federakuntzaren desegitea erabakitzea.

j) Bere garrantzia dela eta Batzar Nagusiaren oniritzia eskatzen duten beste erabaki guztiak hartzea.

*16. artikulua.–* 1.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren Batzar Nagusia lurralde federakuntzetako estamentuetako ordezkariek osatuko dute eta lau urtean behin hautatuko da, boto libre, zuzen, berdin eta sekretuaren bidez. Hautaketa hori, lurralde federakuntzetako Batzar Nagusi bakoitzean egingo da.

2.– Edozein kasutan, hauteskundeak kirol modalitatearen joko olinpikoak egiten diren urteetan egingo dira beti, eta lurralde federakuntzetako batzar nagusiak berritu eta gero.

3.– Salbuespen gisa, eta Eusko Jaurlaritzak berariazko baimena eman eta gero, hauteskunde-prozesuaren hasiera atzeratu edo aurreratu daiteke, aurreikusitako hasiera-egunean ezinezkoa gertatzen bada.

*17. artikulua.–* 1.– Batzar Nagusia klub, kirol elkarte, kirolari, teknikari eta epaileen estamentuetako ordezkariek osatuko dute, ondorengo proportzioan:

a) Batzarreko kide guztien % 70, klub eta kirol elkarteen estamentuan.

c) Un órgano de representación cuyo titular será el Presidente o Presidenta de la federación.

CAPÍTULO I
ASAMBLEA GENERAL

*Artículo 15.–* La Asamblea General es el máximo órgano de gobierno de la federación y tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Elegir Presidente o Presidenta y Junta Directiva.

b) Aprobar las cuentas y presupuestos de la federación.

c) Aprobar y/o modificar los estatutos.

d) Aprobar la moción de censura.

e) Aprobar el calendario de competiciones oficiales.

f) Aprobar el plan de actuación de la federación.

g) Aprobar y/o modificar los reglamentos federativos.

h) Disponer, enajenar y gravar bienes inmuebles, concertar préstamos y emitir títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial, conforme a lo establecido en los presentes estatutos.

i) Acordar la disolución de la federación.

j) Adoptar todas aquellas otras decisiones que, por su trascendencia, precisen la aprobación de la Asamblea General.

*Artículo 16.–* 1.– La Asamblea General de la Federación Vasca de Tiro con Arco estará integrada por las y los representantes de los estamentos de las federaciones territoriales y será elegida cada cuatro años mediante sufragio libre, directo, igual y secreto, en una elección que se realizará en el seno de cada Asamblea General de sus federaciones territoriales.

2.– En todo caso, las elecciones se realizarán coincidiendo con los años de celebración de los juegos olímpicos de la modalidad deportiva y una vez se hayan renovado las asambleas generales de las federaciones territoriales.

3.– Excepcionalmente, y previa autorización administrativa expresa del Gobierno Vasco, el inicio del proceso electoral podrá retrasarse o adelantarse cuando en las fechas de inicio previstas no resulte posible.

*Artículo 17.–* 1.– La Asamblea General estará integrada por las y los representantes de los estamentos de clubes, agrupaciones deportivas, deportistas, técnicas y técnicos, y juezas y jueces en la siguiente proporción:

a) Una representación para el estamento de clubes y agrupaciones deportivas del 70% del total de miembros de la asamblea.

b) Batzarreko kide guztien % 15, kirolarien estamentuan.

c) Batzarreko kide guztien % 15, teknikari jaun/andereen nahiz epaile jaun/andereen estamentuetan. Hauteskundeak deitzeko unean, ordezkaritza eta estamentu bakoitzaren lizentzia kopurua proportzionalak izango dira.

2.– Aurreko erregela aplikatu eta gero estamentu bakoitzean geratzen den ehuneko osoa honela banatuko da: estamentu bakoitzeko, Euskal Federakuntzan erroldatutako pertsona guztiei dagokionean, atxikita dituen kide kopuruarekin proportzionala den ordezkari kopuru jakin bat esleituko zaio lurralde federakuntza bakoitzari.

3.– Kideen kopuru osoa ezingo da 80 baino gehiagokoa izan. Batzorde Nagusiko kideei dagokion kopuru zehatza Hauteskunde Batzordeak zehaztuko du, hauteskunde bakoitzaren aurretik, onartutako hauteskunde-errolda aurrean izanik eta Hauteskunde-Araudiak, bere kasuan, ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

*18. artikulua.–* 1.– Hautatuak izan diren unean Batzar Nagusiko kideen artean plazaren bat hutsik gertatuko balitz, Batzar Nagusirako azkeneko hauteskundetan estamentu bakoitzean eginiko ordezkoen zerrendan aurrena dagoen pertsonak estaliko du, Hauteskunde-Araudiak helburu horretarako ezartzen duen prozedurari jarraiki.

2.– Lurralde federakuntza zehatz batean estamentu zehatz bat ez badago ala estamentu bat osatzen duten pertsonen kopuru osoak lurralde federakuntza horri esleitutako ordezkaritzarako gutxieneko kopurua lortzea zilegi egiten ez badu, estamentuko plaza hutsak lurralde federakuntza horretako gainerako estamentuei proportzionalki esleituko zaizkie.

*19. artikulua.–* 1.– Batzar Nagusiak ohiko eta ez ohiko bilerak egiten ditu.

2.– Batzar Nagusiak ohiko saioa ospatuko du urtean behin gutxienez lehenengo sei hilabetekoaren barnean, kontuen egoera eta aurrekontua onartzeko. Egutegi ofiziala denboraldia hasi aurretik onartu beharko da.

3.– Bere eskumeneko gainerako gaiak, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik, halaber ohiko bileran tratatuko dira.

4.– Batzar Nagusiak ez ohiko bilera ospatuko du ondorengo gaiak tratatzeko:

a) Hauteskundeak burutzea.

b) Zentsura-mozioa.

c) Arautegiak onartzea edota aldatzea.

d) Estatutuak onartzea edota aldatzea.

e) Federakuntza desegitea.

*20. artikulua.–* 1.– Ohiko eta ez ohiko batzarrak biltzeko deia egitea federakuntzako lehendakariari dagokio ofizioz; bestela, Zuzendaritza Batzordeak edo Ba-

b) Una representación para el estamento de deportistas del 15% del total de miembros de la asamblea.

c) Una representación para los estamentos de técnicos y técnicas y de Jueces y Juezas del 15% de los miembros de la asamblea, siendo la representación proporcional al número de licencias de cada estamento existentes en el momento de convocarse elecciones.

2.– El porcentaje global que resulte para cada estamento, tras aplicar la regla anterior, se distribuirá atribuyendo a cada una de las federaciones territoriales un número de representantes proporcional al número de miembros que tengan adscritos por cada estamento en relación con el total de los censados en la Federación Vasca.

3.– El número total de componentes no podrá ser superior a 80. La cifra exacta de miembros de la Asamblea General se determinará por la Junta Electoral, antes de cada elección, a la vista del censo electoral aprobado y, de acuerdo, con los criterios que, en su caso, establezca el Reglamento electoral.

*Artículo 18.–* 1.– Si durante el período para el que resultaron elegidos, se produjera alguna vacante entre los miembros de la Asamblea General, se cubrirán por la persona que encabece la lista de suplentes de cada estamento en las últimas elecciones a la Asamblea General, de acuerdo con el procedimiento que establezca al efecto el Reglamento Electoral.

2.– Si en una determinada federación territorial no existe un determinado estamento o cuando la totalidad de las personas que forman un estamento no permite alcanzar el número mínimo de representación atribuido a esa federación territorial, las vacantes del estamento se atribuirán proporcionalmente al resto de los estamentos de dicha federación territorial.

*Artículo 19.–* 1.– La Asamblea General se reúne en sesiones ordinarias y extraordinarias:

2.– La Asamblea General se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez al año dentro del primer semestre, para la aprobación del estado de cuentas y presupuesto. El calendario oficial deberá ser aprobado antes del inicio de la temporada.

3.– Los demás asuntos de su competencia, salvo los previstos en el párrafo siguiente, se tratarán también en asamblea ordinaria.

4.– La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria para tratar los siguientes asuntos:

a) Celebración de elecciones.

b) Moción de censura.

c) Aprobación y/o modificación de Reglamentos.

d) Aprobación y/o modificación de Estatutos.

e) Disolución de la federación.

*Artículo 20.–* 1.– La convocatoria de las asambleas generales ordinarias o extraordinarias corresponde al Presidente o Presidenta de la federación de oficio, a pe-

tzar Nagusiko kideen % 5ek eskatzen dutenean egingo da. Hori egin ezin bada, edo lehendakariak batzarrerako deialdiari dagokion betebeharra betetzen ez badu, deialdia Zuzendaritza Batzordeak ala Batzarreko kideen % 5a ordezkatzen duen kide talde batek egin ahal izango du.

2.– Horretarako eskumena duten organo edo taldeek eskaera egin eta lehendakariak dagokion eskaera burutzen denetik gehienez 15 egun naturaleko denbora-epean egin beharko du Batzarrerako deia.

*21. artikulua.*– Ohiko nahiz ez ohiko Batzar Nagusirako deialdia eta gai zerrenda, Batzarreko kideei, idatziz, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin jakinaraziko zaizkie.

*22. artikulua.*– 1.– Batzarreko kideek lehendakariari bere ustez interesgarriak diren gaiak gai zerrendan sartzea eskatu ahal izango diote, gutxienez, Batzarra ospatu aurretik hamar eguneko aurrerapenarekin, eta betiere eskaera gutxienez Batzarreko kideen % 5ak proposatzen badu, sartu beharreko gaia federakuntzarentzat interesgarria bada; ala estamentuetako bateko kideen % 5ak eskatzen badu, sartu beharreko gaiak dagokion estamenturako lehentasunezko interesa badu.

2.– Proposatutako gaia gai zerrendan sartzea onartzen ez bada, eskatzaileari jakinarazi beharko zaio, ukatzearen arrazoiak azalduz.

*23. artikulua.*– Batzar Nagusia lehen deialdian baliozkoa izango da baldin eta kideen erdiak gehi bat joaten badira. Bigarren deialdian, berriz, baliozkoa izango da bilerara joandako kide kopurua edozein dela ere.

*24. artikulua.*– Batzar Nagusian botoaren eskuordetzea ez da onartuko.

II. KAPITULUA
ZUZENDARITZA BATZORDEA

*25. artikulua.*– Zuzendaritza Batzordea federakuntzako administrazio-organoa da, eta federakuntzako gaien administrazio- eta ekonomia-kudeaketaz arduratuko da. Horiek, Batzar Nagusiaren arauei jarraiki garatu beharko ditu.

*26. artikulua.*– 1.– Zuzendaritza Batzordeak kide kopuru bakoitia izango du, eta gutxienez honakoek osatuko dute:

a) Lehendakari jaun ala andere bat, zein era berean federakuntzakoa izango baita.

b) Lehendakariorde jaun ala anderea, zeinek plaza hutsik balego ala bere titularra falta balitz nahiz gaixo balego, lehendakaritzako funtzioak bere gain hartuko bailituzke.

tición de la Junta Directiva o del 5% de los componentes de la Asamblea General. Si ello no fuera posible, o el Presidente o Presidenta no cumpliera con su obligación de convocar la asamblea, la Junta Directiva o un colectivo de miembros de la Asamblea que represente al 5% de sus componentes podrán realizar la convocatoria.

2.– El Presidente o Presidenta deberá realizar la convocatoria a la Asamblea en el plazo máximo de 15 días naturales a partir de que se formule la correspondiente solicitud, por cualquiera de los órganos o colectivos legitimados para ello.

*Artículo 21.*– La convocatoria de la Asamblea General, tanto ordinaria como extraordinaria junto con el orden del día, será comunicada a los miembros de la Asamblea, por escrito, con una antelación mínima de 15 días.

*Artículo 22.*– 1.– Los miembros de la Asamblea podrán solicitar del Presidente o Presidenta, con al menos diez días de antelación a la celebración de la Asamblea, la inclusión en el orden del día de aquellos asuntos que consideren de interés, siempre que la solicitud se haga a propuesta, como mínimo, de un 5% de los miembros de la Asamblea, si el punto a incluir es de interés general de la federación; o de un 5% de los miembros de uno de los estamentos, si el punto a incluir es de preferente interés para el estamento de que se trate.

2.– La denegación de la inclusión del punto propuesto en el orden del día deberá comunicarse al peticionario alegando las razones que hayan motivado la denegación.

*Artículo 23.*– La Asamblea General quedará válidamente constituida en primera convocatoria cuando concurra la mitad más uno de sus miembros. En segunda convocatoria bastará con la concurrencia de cualquier número de asistentes.

*Artículo 24.*– No se admitirá la delegación de voto en el seno de la Asamblea General.

CAPÍTULO II
JUNTA DIRECTIVA

*Artículo 25.*– La Junta Directiva es el órgano de administración de la federación y ejerce las funciones de gestión administrativa y económica de los asuntos federativos que deberá desarrollar conforme a las directrices de la Asamblea General.

*Artículo 26.*– 1.– La Junta Directiva, que contará con un número impar de miembros, estará compuesta como mínimo por:

a) Un Presidente o Presidenta, que lo será asimismo de la Federación.

b) Un Vicepresidente o Vicepresidenta, que asumirá las funciones de la Presidencia en caso de vacante, ausencia o enfermedad de su titular.

c) Diruzaina.

d) Klubak eta taldeak ordezkatzen dituen kide bat.

e) Kirolariak ordezkatzen dituen kide bat.

f) Epaileak eta teknikariak ordezkatzen dituen kide bat.

2.– Lurralde federakuntzetako lehendakariak eskubide osoa duten Zuzendaritza Batzordeko kideak izango dira.

3.– Zuzendaritza Batzordeari federakuntzako idazkariak lagunduko dio; hitza izango du, baina botorik ez.

4.– Pertsona berak lehendakari eta diruzain karguak izan ditzake.

5.– Zuzendaritza Batzordearen kargu guztiak ohorezkoak dira, idazkari eta diruzain karguak izan ezik zein ordaindu ahal izango baitira.

6.– Batzar Nagusiko kideak ez diren Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak joan ahal izango dira batzarretara; hitza izango dute baina botorik ez.

*27. artikulua.*– 1.– Zuzendaritza Batzordeko kideak lau urtetik behin hautatuko dira, Batzar Nagusia eraberritzen denean, botoen gehiengoaren bidez, Batzordeko kideek emandako boto libre, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez, itxitako eta blokeatutako zerrendekin eratutako hautagaiak aurkeztu eta onartu ondoren. Hautagai bakarreko hipotesietan bozketa ez da egokitzat hartuko.

2.– Zuzendaritza Batzordeko kideak, lehendakari jaun ala anderea izan ezik zeini kargu honetarako ezarritakoa aplikatzen baitzaio, berriro hautatuak gertatu ahal izango dira, baina aginteen muga-epea 4 aginte-koa izango da, Zuzendaritza Batzordean betetako zuzendaritza kargu guztiak zenbatuko direlarik. Aurreko muga hala izanik, aurreko agintea amaitzen denetik aginte bat pasatzen denean edonolako hauteskunde nahiz esleitze prozesu berrira aurkezteko gai izango dira.

*28. artikulua.*– 1.– Federakuntzako lehendakariari ala, hori izanik ezean, Zuzendaritza Batzordeko kideen % 25ari egokituko zaio federakuntzaren bileretarako deia egitea.

2.– Deialdiarekin batera gai zerrenda aurkeztu beharko da, eta hor eztabaidatu behar diren gaiak, nahiz horien inguruko dokumentazioa adierazi beharko dira.

3.– Gai zerrenda hori, gutxienez, bilera egin baino bi egun lehenago jakinarazi beharko zaie Batzarreko kideei, idatziz, behar bezala justifikatutako premia dagoenean salbu.

4.– Hala ere, deialdia egon ez arren, baliozkotzat hartuko da kide guztiak joaten badira, eta aho batez hala erabakitzen badute.

*29. artikulua.*– 1.– Zuzendaritza Batzordea baliozkotasunez eratuta geratuko da lehen deialdira kideen erdia gehi bat bertaratzen direnean, eta bigarren deial-

c) Tesorero.

d) Un vocal en representación de clubes y agrupaciones.

e) Un vocal en representación de deportistas.

f) Un vocal en representación de jueces y técnicos.

2.– Los Presidentes o Presidentas de las Federaciones Territoriales forman parte de la Junta Directiva como miembros de pleno derecho.

3.– La Junta Directiva estará asistida por el Secretario de la Federación, con voz pero sin voto.

4.– Los cargos de vicepresidente y tesorero pueden ser ejercidos por la misma persona.

5.– Todos los cargos de la Junta Directiva son honoríficos, excepto los del Secretario y el del Tesorero que podrán ser retribuidos.

6.– Todos los miembros de la Junta Directiva que no lo sean de la Asamblea General podrán asistir a ésta con voz pero sin voto.

*Artículo 27.*– 1.– Las o los miembros de la Junta Directiva se elegirán cada cuatro años, una vez renovada la Asamblea General, por mayoría de votos, mediante sufragio libre, igual, directo y secreto, emitidos por los miembros de la Asamblea, previa presentación y aceptación de las candidaturas formadas por listas cerradas y bloqueadas. No procederá la votación en los supuestos de candidatura única.

2.– Los miembros de la Junta Directiva, salvo el Presidente o Presidenta al que resulta de aplicación lo dispuesto para este cargo, podrán ser reelegidos, pero el límite temporal de mandatos será de 4 mandatos, computándose todos los cargos directivos que hayan ostentado en la Junta Directiva. No obstante la limitación precedente, el transcurso de 1 mandato desde la finalización de su anterior mandato les habilitará para presentarse a cualquier nuevo proceso de elección o designación.

*Artículo 28.*– 1.– Corresponderá al Presidente de la Federación o, en su defecto, al 25% de los miembros de la Junta Directiva, la convocatoria de las sesiones de la misma.

2.– La convocatoria se acompañará del orden del día donde figuren los asuntos a tratar, y de la documentación relativa a los mismos.

3.– Será notificada por escrito a los miembros de la Junta con al menos dos días de antelación, salvo supuestos de urgencia debidamente justificados.

4.– No obstante, aunque no haya convocatoria, se entenderá válidamente constituida si concurren todos sus miembros y así lo acuerdan por unanimidad.

*Artículo 29.*– 1.– La Junta Directiva quedará válidamente constituida cuando concurran en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros, y en se-

dira, gutxienez, kideen % 25 bertaratzen denean. Nolanahi ere, federakuntzako lehendakaria edo lehendakariordea ere bertaratuko beharko dira.

2.– Federakuntzako lehendakaria, edo, hau egon ezean, lehendakariordea izango da, Zuzendaritza Batzordeko bileretako buru, eta bere jarduera zuzendu eta koordinatuko du.

3.– Bere kide guztiek espresuki hala onartzen badute, Zuzendaritza Batzordeak bere hitzarmenak posta elektroniko, fax, bideo-konferentzia eta antzeko baliabide teknikoekin burutu ahal izango du. Hipotesi hauetan, dagokion akta fax, posta elektroniko eta gainerako euskarriekin idatziko da.

*30. artikulua*.– 1.– Zuzendaritza Batzordeak, lehendakari jaun ala anderea barne, modu kolektiboan ondorengo arrazoiren batengatik utziko du kargua:

a) Bere kideei dagokion % 50 baino gehiagoren kargu uztea ala heriotza.

b) Hurrengo artikuluan aurreikusitako zentsura-mozioaren onarpena.

c) Bere kideei dagokion % 50 baino gehiagoren gaitasungabetzea ala ezintasuna.

d) Estatutuetan aurreikusitako gainerako arrazoiengatik.

2.– Zuzendaritza Batzordeko kideek banaka utziko dute kargua aurreko puntuaren a), c) eta d) ataletan adierazitako arrazoi berdinengatik.

3.– Lehendakari jaun ala andereak kargua utziko balu, lehendakariorde jaun ala andereak ordeztuko du. Hori zilegi izango ez balitz, Zuzendaritza Batzordeak bere kideen artean lehendakari jaun ala andere berri bat hautatu ahal izango du. Hautaketa hori Batzorde Nagusiak ospatzen duen lehenengo bileran berretsi beharko da.

4.– Zuzendaritza Batzordeko kide batek ala gehiagok banaka kargua utziko balute, lehendakari jaun ala anderea izan ezik, zerrendan hurrengoak direnek ordezkatuko lituzkete. Aukera hori ez balego, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideek hauteskunde bidez ordezkoak hautatu ahal izango lituzkete zein Batzar Nagusiak ospatzen duen lehenengo bileran berretsi beharko baita.

5.– Aurreko puntuetan xedatutakoa ezin izango da aplikatu lurralde federakuntzetako lehendakarien kasuan, eta kargua uzteko arrazoiak dagozkien federakuntzen estatutuetan ezarritakoak izango dira.

*31. artikulua*.– 1.– Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna eskatu dezake zentsura-mozio baten bidez zeinek xede horretarako deitutako bileran Batzar Nagusiko kideen gehiengo osoa alde izan beharko baitu.

gunda convocatoria cuando concurran al menos un 25% de sus miembros, y, en todo caso, el Presidente o Presidenta de la Federación o el Vicepresidente o Vicepresidenta.

2.– El Presidente o Presidenta de la Federación o, en su ausencia, el Vicepresidente o Vicepresidenta, presidirá las sesiones de la Junta Directiva y dirigirá y coordinará su actuación.

3.– Siempre que así lo acepten expresamente todos sus miembros, la Junta Directiva podrá adoptar sus acuerdos mediante correo electrónico, fax, videoconferencia y medios técnicos análogos. En estos supuestos, el acta correspondiente se redactará acompañando de los justificantes de los fax, correos electrónicos y soportes correspondientes.

*Artículo 30*.– 1.– La Junta Directiva, incluido el Presidente o Presidenta, cesará de forma colectiva por alguna de las siguientes causas:

a) Dimisión o fallecimiento de más del 50% de sus miembros.

b) Aprobación de la moción de censura prevista en el artículo siguiente.

c) Inhabilitación o incapacidad de más del 50% de sus miembros.

d) Por las demás causas previstas en los estatutos.

2.– Los miembros de la Junta Directiva cesarán individualmente por causas idénticas a las señaladas en los apartados a), c) y d) del punto anterior.

3.– En el supuesto de cese del Presidente o Presidenta le sustituirá el vicepresidente o vicepresidenta. Si ello no fuera posible, la Junta Directiva podrá elegir de entre sus miembros una o un nuevo Presidente. Dicha elección deberá ratificarse en la primera reunión que celebre la Asamblea General.

4.– En el supuesto de cese individual de uno o más miembros de la Junta Directiva, excepto el Presidente, serán sustituidos por los que figurasen a continuación en la lista. En su defecto, los restantes miembros de la Junta Directiva podrán elegir sustitutos mediante elección que deberá ratificarse en la primera reunión que celebre la Asamblea General.

5.– Lo dispuesto en los números anteriores no será de aplicación para los Presidentes de Federaciones Territoriales, cuyas causas de cese serán las que establezcan los estatutos de sus respectivas federaciones.

*Artículo 31*.– 1.– La Asamblea General podrá exigir la responsabilidad de la Junta Directiva mediante la adopción de una moción de censura que deberá ser respaldada por la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea General en una sesión convocada al efecto.

2.– Zentsura-mozioa onartzen denean Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek kargua utzi beharko dute, federakuntzako lehendakariak barne, lurralde federakuntzetako lehendakariek izan ezik, zein Zuzendaritza Batzordean eskubide osoko kide bezala sartuko baitira.

*32. artikulua.*– 1.– Zuzendaritza Batzordeak kargua uzten duenean, jardunean jarraituko du, eta gehienez hilabeteko epean Hauteskunde Batzordearen bilera egiteko deituko du, hauteskunde-prozesuari hasiera eman diezaion. Han, beste lehendakari bat hautatuko da, eta harik bere Zuzendaritza Batzordea izendatuko du.

2.– Hori ezinezkoa balitz, federakuntzako Batzar Nagusiko kide guztietatik gutxienez % 5 ordezkatzen duen edozein kide-taldek Hauteskunde Batzorderako deialdia burutu ahal izango du.

*33. artikulua.*– Federakuntzako idazkariak, gutxienez, ondorengo funtzioak bete beharko ditu:

a) Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileren aktak egitea.

b) Federakuntzaren liburuak eta gainerako dokumentuak zaintzea, kontabilitatekoak salbu.

c) Aipatu liburuen edukien inguruko ziurtagiriak egitea.

*34. artikulua.*– Federakuntzako diruzainak, gutxienez, ondorengo funtzioak bete beharko ditu:

a) Federakuntzaren kontuak eta ekonomi arloko eragiketak zuzentzea.

b) Federakuntzaren kontabilitate-liburuak zaintzea eta horietaz arduratzea.

c) Beharrezkoak diren kontabilitateko dokumentu guztiak prestatzea, bereziki, urteko aurrekontuaren zirriborroa eta ekitaldi bakoitzaren balantzea, gero Batzar Nagusiak onar ditzan.

III. KAPITULUA
LEHENDAKARIA

*35. artikulua.*– Federakuntzako lehendakari jaun ala andereak federakuntzaren legezko ordezkaritza hartzen du bere gain; Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak gauzatzen ditu; Biek egindako saioen buru izango da, eta zuzenduko ditu. Bestalde, berdinketa gertatzen bada, bere kalitateko botoaz baliatuz erabakiko du.

*36. artikulua.*– 1.– Federakuntzako lehendakari jaun ala anderea izango da hautatutako hautagai-zerrendaren burua den hura eta Batzar Nagusiko kidea izango da federakuntza estamentuetako ordezkari bezala.

*37. artikulua.*– Lehendakari jaun ala anderea berriz hautatu ahal izango da, baina aginteei dagokion mu-

2.– La aprobación de la moción de censura causará el cese de todos los miembros de la Junta Directiva, incluido el Presidente o Presidenta de la Federación, salvo los Presidentes de las Federaciones Territoriales que se incorporarán como miembros de pleno derecho en la nueva Junta Directiva.

***Artículo** 32.*– 1.– Cuando la Junta Directiva cese, seguirá en funciones y procederá a convocar una reunión de la Junta Electoral, en el plazo máximo de un mes, para que dé inicio al proceso electoral.

2.– No siendo ello posible, cualquier colectivo de miembros de la Asamblea General de la Federación que represente al menos un 5% del total de componentes de la misma, podrá convocar a la Junta Electoral.

***Artículo** 33.*– El Secretario o Secretaria de la federación tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Levantar acta de las reuniones de la Asamblea General y de la Junta Directiva.

b) Cuidar de los libros y demás documentos de la federación, salvo los de contabilidad.

c) Expedir los certificados que procedan sobre el contenido de los citados libros.

***Artículo** 34.*– El Tesorero o Tesorera de la federación tendrá encomendadas, como mínimo, las siguientes funciones:

a) Dirigir las cuentas y las operaciones de orden económico de la federación.

b) Custodiar y llevar los libros de contabilidad de la federación.

c) Preparar todos los documentos contables necesarios, en especial, el borrador del presupuesto anual y el balance de cada ejercicio, para su posterior aprobación por la Asamblea General.

CAPÍTULO III
PRESIDENTE O PRESIDENTA

***Artículo** 35.*– El Presidente o Presidenta de la federación asume la representación legal de la misma, ejecuta los acuerdos adoptados por la Asamblea General y por la Junta Directiva, preside y dirige las sesiones que celebra una y otra, y decide, en caso de empate, con su voto de calidad.

***Artículo** 36.*– 1.– Será Presidente o Presidenta de la federación aquel o aquella que encabece la candidatura que haya resultado elegida y debe ser miembro de la Asamblea General en calidad de representante de los estamentos federativos.

***Artículo** 37.*– El Presidente o Presidenta podrá ser reelegido, pero el límite temporal de mandatos será de tres

ga-epea hiru (3) agintekoa izango da. Aurreko muga hala izanik, aurreko agintea amaitzen denetik aginte bat pasatzen denean edonolako hauteskunde nahiz esleitze prozesu berrira aurkezteko gai izango dira.

Beste hautagairik ez balego eta estatutu hauetan zehaztutako aginte-muga agortuta izango balu, irteten den lehendakari jaun ala anderea berriro burutuko den hauteskundera aurkeztu ahal izango litzateke.

IV. KAPITULUA
XEDAPEN KOMUNAK

*38. artikulua.–* Estatutu hauetako 14. artikuluan jasotzen diren organoetako kideek dagozkien funtzioak betetzen jarraituko dute bere ondorengoek kargua hartu arte.

*39. artikulua.–* Federakuntzako kide anitzeko organoen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilarekin hartuko dira, lege edo estatutu xedapenek gehiengo kualifikatuak eskatzen dituzten kasuetan izan ezik.

*40. artikulua.–* Batzar Nagusiko edo Zuzendaritza Batzordeko kidea izateko baldintzak ondorengoak dira:

a) Adin nagusikoa izatea.

b) Administrazio-auzotasuna federakuntzaren jarduera-eremuan izatea. Ez ohiko egoeretan Batzar Nagusiak baldintza hori barkatu ahal izango du.

c) Karguak edo funtzioak betetzeko gaitasuna kentzen duen diziplinazko zigor irmorik bete behar ez izatea.

d) Epai judizial irmoaren bidez kargu publikoak betetzeko gaitasuna baliogabetzen duen zigorrik ez izatea.

e) Erabaki judizial irmoaren bidez ezgai deklaratu ez izana.

*41. artikulua.–* 1.– Federakuntzako organoek hartu dituzten erabaki guztien akta egin behar du idazkariak. Aktan ondorengoak jaso beharko dira, gutxienez: bertaratutako pertsonen izena, bilera non eta noiz egin den; eztabaidatu diren puntu nagusiak; bozketa nola egin den eta haren emaitza, eta erabakien edukia.

2.– Onartutako erabakiaren aurkako botoek, betiere arrazoituak badira, kide anitzeko organoen erabakietatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunetik aske utzi ahal dute.

*42. artikulua.–* Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren Zuzendaritza Batzordeak nahi beste batzorde eta antzeko organo eratu ditzake, federakuntzaren kirol jardueraren sektore bat garatzeko nahiz federakuntzako talde edo estamentuen funtzionamendua hobetzeko.

(3) mandatos. No obstante la limitación precedente, el transcurso de un (1) mandato desde la finalización de su anterior mandato le habilitará para presentarse a cualquier nuevo proceso de elección o designación.

En el caso de no haber otra candidatura, y haber agotado el límite de mandatos determinado en estos estatutos, el Presidente o Presidenta saliente se podrá volver a presentar a la reelección.

CAPÍTULO IV
DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 38.–* Las y los miembros de los órganos contemplados en el artículo 14 de los presentes estatutos continuarán en el ejercicio de sus funciones hasta la toma de posesión de sus sucesores.

*Artículo 39.–* Los acuerdos de los órganos colegiados de la federación se adoptarán por mayoría simple de miembros presentes, salvo en los supuestos en los que disposiciones legales o estatutarias prevean mayorías cualificadas.

*Artículo 40.–* Son requisitos para ser miembro de la Asamblea General o de la Junta Directiva de la federación, los siguientes:

a) Haber alcanzado la mayoría de edad.

b) Poseer la vecindad administrativa dentro del ámbito de actuación de la federación. En circunstancias excepcionales la Asamblea General podrá dispensar de este requisito.

c) No estar sujeto a sanción disciplinaria firme que conlleve inhabilitación para el desempeño de cargos o funciones.

d) No haber sido condenado mediante sentencia judicial firme que conlleve la inhabilitación para ostentar cargo público.

e) No haber sido declarado incapaz por decisión judicial firme.

*Artículo 41.–* 1.– De todos los acuerdos adoptados por los órganos federativos se levantará acta por el Secretario, que contendrá con carácter mínimo, el nombre de las personas que hayan intervenido, las circunstancias de lugar y tiempo en que la reunión se haya celebrado, los puntos principales de deliberación, la forma y el resultado de la votación y el contenido de los acuerdos.

2.– Los votos contrarios al acuerdo adoptado, siempre que sean motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiera derivarse de las decisiones de los órganos colegiados.

*Artículo 42.–* La Junta Directiva de la Federación Vasca de Tiro con Arco podrá constituir cuantos comités y demás órganos análogos considere oportuno, tanto aquellos que respondan al desarrollo de un sector de la actividad deportiva de la federación, como los que atiendan al funcionamiento de colectivos o estamentos integrantes de la federación.

*43. artikulua.*– 1.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak dopingari dagokionean ezar daitekeen arautegiak xedatzen dituen organoak izan beharko ditu.

2.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak batzorde tekniko bat izango du, eta batzorde horrek federakuntzaren kirol zuzendaritza teknikoa bere gain hartuko du.

3.– Halaber, federakuntza bide onetik joateko komenigarriak diren bestelako Batzordeak izan ditzake, eta dagozkien arautegietan garatuko dira.

*44. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzako zuzendariek ondorengo eskubideak dituzte:

a) Eusko Jaurlaritzak federakuntzetako zuzendariak etengabe prestatzea, eta doako aholkularitza teknikoa ematea bere funtzioak era egokian bete ditzan.

b) Jarduеretan izandako gastuak itzultzea, federakuntzak berak aurretik ezarritako mugen barruan.

c) Federakuntzaren bitartez, borondatezko jardueratik ondoriozta daitezkeen istripu arriskuetarako eta erantzukizun zibilerako asegurua izatea.

d) Bere jarduera baldintza egokietan burutzea, duintasunari, segurtasunari eta higieneari dagokionean, bere funtzioen izaera eta ezaugarrien arabera.

e) Zuzendariak direla egiaztatzen duen ziurtagiriren bat izatea.

f) Kirolaren esparruan egindako elkarpen sozialarengatik errespetua eta esker ona jasotzea.

g) Federakuntzako zuzendaritza organoetan parte hartzeko informazio eta dokumentazio guztia eskura izatea.

h) Esleitzen zaizkion funtzioak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren materialak era iraunkorrean jasotzea.

i) Federakuntzaren arauetan aurreikusitako bestelakoak.

*45. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzako zuzendariek ondorengo betebeharrak dituzte:

a) Bere betebeharrak garatzean jasotako eta ezagututako informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea, hala badagokio. Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak kargua uzten duenean ere iraungo du.

b) Funtzioak betetzean behar bezalako arduraz jokatzea, hots, uneoro federakuntzaren estatutuetako helburuen arabera jokatzea.

c) Dagozkien kirol federakuntzek beren eskura jartzen dituzten baliabide materialak errespetatzea eta zaintzea.

*Artículo 43.*– 1.– La Federación Vasca de Tiro con Arco deberá contar con los órganos que establezca la normativa aplicable en materia de dopaje.

2.– La Federación Vasca de Tiro con Arco contará con un comité técnico que será el órgano que asuma la dirección técnico-deportiva de la federación.

3.– Igualmente podrá contar con otros Comités que se estimen convenientes para la buena marcha de la Federación y que se desarrollarán en los Reglamentos que correspondan.

*Artículo 44.*– Las y los directivos de la Federación Vasca de Tiro con Arco tienen los siguientes derechos:

a) Recibir del Gobierno Vasco la formación permanente del personal directivo de las federaciones y el asesoramiento técnico gratuito para el correcto desempeño de sus funciones.

b) Ser reembolsados por los gastos realizados en el desempeño de sus actividades dentro de los límites previamente establecidos por la propia federación.

c) Disponer de un seguro, a través de la federación, contra los riesgos de accidente y responsabilidad civil derivados directamente del ejercicio de la actividad voluntaria.

d) Realizar su actividad en las debidas condiciones de dignidad, seguridad e higiene en función de la naturaleza y características de sus funciones.

e) Disponer de una acreditación identificativa de su condición de directivo o directiva.

f) Obtener el respeto y el reconocimiento por su contribución social en el campo del deporte.

g) Disponer de la información y documentación precisa para su participación en los órganos directivos de la federación.

h) Recibir con carácter permanente los medios materiales necesarios para el correcto ejercicio de las funciones que se les asignen.

i) Cualesquiera otros previstos en las normas de la federación.

*Artículo 45.*– Las y los directivos de la Federación Vasca de Tiro con Arco están obligados a:

a) Guardar, cuando proceda, confidencialidad de la información recibida y conocida en el desarrollo de sus funciones. La obligación de confidencialidad subsistirá aun cuando hayan cesado en el cargo.

b) Actuar con la debida diligencia en el ejercicio de sus funciones, ateniéndose en todo momento a los fines estatutarios de la federación.

c) Respetar y cuidar los recursos materiales que pongan a su disposición las correspondientes federaciones deportivas.

d) Federakuntzarekin hartutako konpromisoak betetzea.

e) Funtzioak behar bezala betetzeko antolatzen diren prestakuntza-jardueretan parte hartzea.

f) Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan debekatuta dagoen edozein ordain ekonomikori uko egitea.

g) Funtzioak betetzen jarraitzea bere ondorengoek kargua hartu arte, ezinbestean utzi behar ez badu salbu.

h) Eskumeneko organoek hartutako erabakiak eta ebazpenak ontzat hartzea.

i) Kargua uzten duten zuzendarien ordezkoei beharrezkoa den dokumentazio eta informazio guztia ematea.

j) Euren interes pertsonalarekin zerikusia duten gaiei buruzko deliberamendutan parte ez hartzea. Interes pertsonala egongo da gaiak zuzendariaren ezkontideari edota antzeko afektibitate harremana duten pertsonei, edo haren ondorengoei edo aurrekoei, eragiten badie, edota zuzendaritzako kargua zein neurri bateko partaidetza duen sozietateari eragiten badio.

k) Organoek antolatutako bileretara joatea, zeinetako kidea baita, eta hauen deliberamendutan parte hartze aktiboa izatea, bere irizpideak erabaki egokiak hartzen lagun dezan.

l) Emandako egiaztagiria behar bezala erabiltzea.

m) Hala badagokio, federakuntzak onartzen duen Kode Etikoa betetzea.

n) Federakuntza honen estatutu edo arautegietan aurreikusitako bestelakoak.

*46. artikulua.*– 1.– Kirol federakuntzaren lehendakari kargua bateraezina da beste kirol federakuntza bateko lehendakari karguarekin, nahiz eta beste kirol modalitate batekoa izan.

2.– Kirol federakuntzaren lehendakari kargua bateraezina da federakuntza horretan dagoen klub edo kirol elkarte bateko lehendakari karguarekin. Lehendakaritza betetzen duen pertsona titularra, hain zuzen, klub edo kirol elkarte bateko ordezkari gisa batzarrean egotegatik aukeratzen badute, federakuntzako edo klubeko kargua aukeratu beharko du, eta klubean duen karguari uko egiten diola ulertuko da, bietako bat espresuki aukeratzen ez badu.

3.– Kirol federakuntzaren lehendakaritza bateraezina izango da Foru Administrazioaren edota Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren barne dagoen federakuntza-eremuarekin zuzenean lotutako kargu ala enplegu publikoak betetzearekin.

4.– Kirol federakuntzaren zuzendaritza kargua bateraezina da erakunde bereko kontseilari edo aholkulari profesional izatearekin. Era berean, kirol federakun-

d) Cumplir con los compromisos adquiridos con la federación.

e) Participar en las actividades formativas que se organicen para el diligente cumplimiento de sus funciones.

f) Rechazar cualquier tipo de contraprestación económica prohibida en el Decreto 16/2006, de 31 de enero.

g) Continuar en el ejercicio de sus funciones hasta la toma de posesión de sus sucesores, salvo fuerza mayor.

h) Acatar los acuerdos y resoluciones adoptados por los órganos competentes.

i) Proporcionar toda la documentación e información necesaria a las y los nuevos directivos que vayan a sustituir a las y los salientes.

j) Abstenerse de asistir e intervenir en las deliberaciones que afecten a asuntos en los que tengan interés personal. Se considerará que existe interés personal cuando el asunto afecte a cónyuge de la o el directivo o a personas vinculadas por análoga relación de afectividad o sus descendientes o ascendientes o a una sociedad en la que desempeñe un puesto directivo o tenga una participación significativa.

k) Asistir a las reuniones de los órganos de que forme parte y participar activamente en sus deliberaciones a fin de que su criterio contribuya en la toma de decisiones adecuadas.

l) Utilizar debidamente la acreditación proporcionada.

m) Cumplir el Código Ético que, en su caso, se apruebe por la federación.

n) Cualesquiera otras previstas en las normas estatutarias o reglamentarias de esta federación.

*Artículo 46.*– 1.– El cargo de Presidente o Presidenta de la federación deportiva es incompatible con el cargo de Presidente o Presidenta de otra federación deportiva, aunque sea de una modalidad deportiva diferente.

2.– El cargo de Presidente o Presidenta de la federación deportiva es incompatible con el de Presidente o Presidenta de un club o agrupación deportiva integrada en la misma. Cuando la persona titular de la Presidencia sea elegida precisamente por su condición de asambleísta en representación de un club o agrupación deportiva deberá optar por el cargo en la federación o en el club, entendiéndose que renuncia al cargo en el club para el caso de no optar expresamente por uno de ellos.

3.– La Presidencia de la federación deportiva será incompatible con el desempeño de cargos o empleos públicos directamente relacionados con el ámbito federativo dentro de la Administración Foral y General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.– El cargo directivo de la federación deportiva es incompatible con el ejercicio de funciones de consejo o asesoramiento profesional a la misma. Asimismo, el car-

tzaren zuzendaritza kargua bateraezina da bertarako lan harremana, harreman zibila ala merkataritzakoa dela medio zerbitzu profesionalak eskaintzearekin.

*47. artikulua.*– Federakuntzako zuzendariek debekatuta dituzte ondorengoak:

a) Kargua utzi edo dimititu eta gero kalte-ordainak jasotzea.

b) Hirugarren pertsonengandik edo erakundeengandik komisioak edo antzeko mozkinak jasotzea, kirol erakundeak ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeagatik.

c) Kirol edo ekonomi helburuak lortzeagatik pizgarriak jasotzea.

d) Bere enpresen bitartez ala hirugarren pertsonen nahiz erakundeen izenean kirol federakuntzarekin berarekin kontratuak egitea. Autokontratatzeko debeku horrek eragina du ezkontideengan, antzeko afektibitate harremanen bidez lotutako pertsonengan eta ondorengo nahiz aurreko enpresengan.

e) Kirol federakuntzaren ondarea erabiltzea ala ondare-abantaila bat lortzeko bertan duen postuaz baliatzea.

IV. TITULUA

FEDERAKUNTZAKO ESTAMENTUAK

*48. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren estamentuetako kideek, gutxienez, ondorengo eskubideak izango dituzte:

a) Federakuntza organoetan ordezkaritza izatea eta horietako kide izatea, estatutu hauen eta aplikagarria den arautegiaren arabera ezarritako eran eta proportzioan.

b) Federakuntzak antolatutako jarduera guztietan parte hartzea, federakuntzak horren inguruan ematen dituen arauei jarraiki.

c) Kirol hau hobeto garatu dadin eskatzen duten beste informazio jasotzea, eta federakuntzako gaien inguruan bere irizpide nahiz iritziak modu askean adieraztea.

d) Federakuntzaren arauak bete daitezela eskatzeko federakuntzako eskumeneko organoetara jotzea.

e) Egoki iruditzen zaizkien kontsultak eta erreklamazioak egitea, federakuntzaren arauei jarraiki.

f) Lizentzia egiaztatzen duen dokumentua eskuragarri izatea.

*49. artikulua.*– Federakuntzaren estamentuetako kideek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

a) Ezartzen diren kuotak ordaintzea.

b) Federakuntzako organoek hartutako erabaki guztiak betetzea, hartarako eskumena duen organoak baliogabetzen edo kentzen ez dituen bitartean.

go directivo de la federación deportiva es incompatible con la prestación de servicios profesionales bajo relación laboral, civil o mercantil a la misma.

*Artículo 47.*– El personal directivo de la federación tiene prohibido:

a) Percibir indemnizaciones tras el cese o dimisión en el cargo.

b) Percibir comisiones o beneficios análogos de terceras personas o entidades por la contratación de bienes y servicios por la entidad deportiva.

c) Percibir incentivos por la consecución de objetivos deportivos o económicos.

d) Contratar, a través de sus empresas o en nombre de terceras personas o entidades, con la propia federación deportiva. Tal interdicción de autocontratación alcanza a las empresas de sus cónyuges, personas vinculadas con análoga relación de afectividad y de sus descendientes o ascendientes.

e) Hacer uso del patrimonio de la federación deportiva o valerse de su posición en la misma para obtener una ventaja patrimonial.

TÍTULO IV

ESTAMENTOS FEDERATIVOS

*Artículo 48.*– Los integrantes de los estamentos de la Federación Vasca de Tiro con Arco tendrán, como mínimo, los siguientes derechos:

a) Estar representados y formar parte de los órganos federativos en la forma y proporción que les reconocen los presentes estatutos y la normativa aplicable.

b) Participar en cuantas actividades organice la federación, conforme a las reglas que ésta dicte al respecto.

c) Recibir cuanta información soliciten y expresar libremente sus criterios y opiniones en temas federativos para el mejor desarrollo de este deporte.

d) Acudir a los órganos federativos competentes para instar el cumplimiento de las normas federativas.

e) Elevar las consultas y reclamaciones que estimen pertinentes conforme a las normas de la federación.

f) Disponer del documento justificativo de la licencia.

*Artículo 49.*– Los integrantes de los estamentos de la federación tendrán los siguientes deberes:

a) Pagar las cuotas que se establezcan.

b) Cumplir todos los acuerdos válidamente adoptados por los órganos federativos en tanto no sean anulados o suspendidos por el órgano competente.

c) Federakuntzaren helburuak era aktiboan lortzen parte hartzea.

d) Hala dagokionean, dituzten karguei atxikitako betebeharrak leialki betetzea.

e) Euskal selekzioek kirol-lehiaketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.

*50. artikulua.–* Estatutu hauei dagozkien xedeetarako, klub edo kirol elkarteak dira Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko buruzko 14/1998 Legearen III. Tituluan aurreikusitakoari jarraiki eratutako elkarteak.

*51. artikulua.–* Klubak eta elkarteak, federakuntzak antolatutako edo baimendutako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko federakuntza horri atxiki beharko dira, lurraldeko federakuntzaren bitartez. Era berean, klub eta kirol elkarteetako estamentuari dagokion federakuntza lizentzia eskuratu beharko dute.

*52. artikulua.–* Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzako kirolariak dira kirolarien estamentuari dagokion federakuntza lizentziaren titularrak diren pertsona fisikoak.

*53. artikulua.–* 1.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzako teknikariak federakuntzak eskatutako titulua, eta estamentu honi dagokion federakuntza lizentzia duten pertsonak dira.

2.– Teknikariak, hala dagokienean, federakuntzaren teknikarien elkargoan elkartuko dira.

*54. artikulua.–* 1.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzako epaileak eskumeneko organoak emandako beharrezko titulua, eta dagokion federakuntza lizentzia duten pertsona fisikoak dira.

2.– Epaileak, hala dagokienean, federakuntzaren epaileen elkargoan elkartuko dira.

V. TITULUA

DIZIPLINAZKO ERREGIMENA

*55. artikulua.–* Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren diziplinazko erregimenean honako hauek aginduko dute: ekainaren 11ko 14/1998 Legearen X. Tituluan xedatutakoak; urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, edo ordezkatzen duen xedapenak; estatutu hauek; eta federakuntzaren beraren Kirol Diziplinazko Arautegiak.

*56. artikulua.–* 1.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzak bere organo-egiturako kide diren pertsona guztiei dagokionean, eta federakuntza horretako kide diren pertsona fisiko edo juridikoei dagokionean soilik izango diziplina ahalmena.

2.– Federakuntzak ezin izango du diziplina ahalmenik burutu kirol jarduera bereko beste lurralde eremuetako federakuntzetako kideei dagokionean, nahiz eta

c) Colaborar activamente en la consecución de los fines de la federación.

d) Cumplir fielmente las obligaciones inherentes a los cargos que en su caso desempeñen.

e) Asistir a las convocatorias de las selecciones vascas para la participación en competiciones deportivas o para la preparación de las mismas.

*Artículo 50.–* A los efectos de los presentes estatutos, son clubes o agrupaciones deportivas las asociaciones constituidas con arreglo a lo previsto en el Título III de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

*Artículo 51.–* Los clubes y agrupaciones, para la participación en competiciones oficiales organizadas o autorizadas por la Federación, deberán adscribirse a esta federación a través de la federación territorial y obtener la licencia federativa correspondiente al estamento de clubes y agrupaciones deportivas.

*Artículo 52.–* Son deportistas de la Federación Vasca de Tiro con Arco las personas físicas titulares de la licencia federativa correspondiente al estamento de deportistas.

*Artículo 53.–* 1.– Son técnicas y técnicos de la Federación Vasca de Tiro con Arco las personas en posesión del título exigido por la federación y que ostenten la correspondiente licencia federativa de este estamento.

2.– Los técnicos se agruparán, en su caso, en el colegio de técnicos de la federación.

*Artículo 54.–* 1.– Son juezas y jueces de la Federación Vasca de Tiro con Arco las personas físicas en posesión de la titulación necesaria emitida por el organismo competente y de la correspondiente licencia federativa.

2.– Los jueces se agruparán, en su caso, en el colegio de jueces de la federación.

TÍTULO V

RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 55.–* El régimen disciplinario de la Federación Vasca de Tiro con Arco se regirá por lo dispuesto en el Título X de la Ley 14/1998, de 11 de junio, por el Decreto 7/1989, de 10 de enero, o disposición que lo sustituya, por los presentes estatutos y por el Reglamento de Disciplina Deportiva de la propia federación.

*Artículo 56.–* 1.– La Federación Vasca de Tiro con Arco sólo tendrá potestad disciplinaria sobre todas las personas que formen parte de su estructura orgánica y sobre todas aquellas personas físicas o jurídicas afiliadas a la misma.

2.– La federación no podrá ejercer la potestad disciplinaria respecto a aquellos miembros de federaciones de otros ámbitos territoriales y de la misma actividad

bere kirol jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan garatu.

*57. artikulua.*– 1.– Diziplinazko Batzordea eta Apelazio Batzordea kirol diziplinazko ahalmena duten Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzako organoak dira, gainerako federakuntza organoak alde batera utzita.

2.– Diziplinazko Batzordea Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzari dagokion eremuaren barnean jardueren arduraduna izango da.

3.– Apelazio Batzordea Euskal Federakuntzaren eta bere lurraldeko federakuntzen Diziplinazko Batzordearen epaien aurka aurkezten diren helegiteetan egin beharreko jarduerez arduratuko da.

*58. artikulua.*– 1.– Diziplinazko Batzordea eta Apelazio Batzordea Zuzendaritza Batzordeak izendatutako kide kopuru bakoitiek osatuko dute. Pertsona bakarreko organoak izan ahal izango dira.

2.– Batzordeko kideak 4 urteko denbora-eperako izendatuko dira, eta kargua betetzeko nahikoak diren ezagutzak izan beharko dituzte.

3.– Diziplinazko eta Apelazio Batzordeetako kideak Zuzendaritza Batzordeko kideak ere izan daitezke.

*59. artikulua.*– 1.– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren Apelazio Batzordearen aurrean Diziplinazko Batzordeak hartzen dituen erabakien aurka egin ahal izango da.

2.– Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean Apelazio Batzordeak hartzen dituen erabakien aurka egin ahal izango da.

VI. TITULUA

HAUTESKUNDE ERREGIMENA

*60. artikulua.*– Euskadiko Arku Tiroketa Federakuntzaren hauteskunde erregimenean ondorengoek aginduko dute: urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren VII. Tituluan xedatutakoak; hori garatzean ematen diren xedapenek; estatutu hauek; eta hauteskunde-arautegiak, zein derrigorrez Batzar Nagusiak onartu beharko baitu.

*61. artikulua.*– Federakuntzaren Batzar Nagusia aukeratzeko, hautesleak euskal federakuntza osatzen duten lurraldeko federakuntzetako batzar nagusietako kideak izango dira. Aukeraketa honek ez ditu hauteskunde-prozesu baten ezaugarriak izango, eta lurraldeko Batzar bakoitzean burutu beharko da, berritu eta gero deitzen den lehenengo bileran, indarrean dagoen arautegiari jarraiki.

*62. artikulua.*– Federakuntzan hauteskunde prozesua sustatzeaz eta haren garapen egokiaz arduratzen den Hauteskunde Batzordea egongo da. Hauteskunde Batzordea hiru kidek osatuko dute.

deportiva, aunque desarrollen su actividad deportiva en el ámbito de la Comunidad Autónoma.

*Artículo 57.*– 1.– El Comité de Disciplina y el Comité de Apelación son los órganos de la Federación Vasca de Tiro con Arco que ejercen la potestad disciplinaria deportiva con independencia de los demás órganos federativos.

2.– El Comité de Disciplina será el encargado de las actuaciones dentro del ámbito de la Federación Vasca de Tiro con Arco.

3.– El Comité de Apelación será el encargado de las actuaciones en los recursos que se presenten a los fallos del Comité de Disciplina de la Federación Vasca y de sus Territoriales.

*Artículo 58.*– 1.– El Comité de Disciplina y el Comité de Apelación estarán compuestos por un número impar de miembros nombrados por la Junta Directiva. Podrá ser un órgano unipersonal.

2.– Los miembros de los Comités serán nombrados para 4 años y deberán reunir conocimientos suficientes para desempeñar el cargo.

3.– Los miembros de los Comités de Disciplina y Apelación podrán formar parte de la Junta Directiva.

*Artículo 59.*– 1.– Las decisiones que adopte el Comité de Disciplina serán impugnables ante el Comité de Apelación de la federación Vasca de Tiro con Arco.

2.– Las decisiones que adopte el Comité de Apelación serán impugnables ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

TÍTULO VI

RÉGIMEN ELECTORAL

*Artículo 60.*– El régimen electoral de la Federación Vasca de Tiro con Arco se regirá por lo dispuesto en el Título VII del Decreto 16/2006, de 31 de enero, por las disposiciones que se dicten en desarrollo del mismo, por los presentes estatutos y por el reglamento electoral que, con carácter obligatorio, deberá aprobar la Asamblea General.

*Artículo 61.*– Para la elección de la Asamblea General de la federación el cuerpo electoral estará compuesto por las y los miembros de las asambleas generales de las federaciones territoriales. Esta elección no revestirá las características de un proceso electoral y deberá realizarse en el seno de cada Asamblea Territorial en la primera reunión que se convoque tras su renovación de acuerdo con la normativa en vigor.

*Artículo 62.*– En la federación existirá una Junta Electoral encargada de impulsar el proceso electoral y velar por su correcto desarrollo. La Junta Electoral estará compuesta por tres miembros.

*63. artikulua.–* Hauteskunde Batzordearen funtzioak lau urteko denbora-eperako izango dira; hala ere, Batzar Nagusiak denbora-epe hori bukatu baino lehen kargutik ken dezake, edo beste bat izendatu.

*64. artikulua.–* 1.– Hauteskunde Batzordeko kideak nahiz ordezkoak Batzorde Nagusiak hautatuko ditu, Federakuntzako kideen artean, hauteskunde prozesuaren hasiera hasi aurretik ospatzen den azkeneko ohiko batzordean, dagokion federakuntza-araudiari jarraiki. Ezingo da, inolako kasutan, Zuzendaritza Batzordeak eginiko esleipen zuzena onartu.

2.– Lehendakari eta Hauteskunde Batzordeko idazkari gisa kiderik zaharrena eta gazteena arituko dira, hurrenez hurren.

3.– Hautagai gisa aurkezten direnak inola ere ezin izango dira izan Hauteskunde Batzordeko kideak. Izendatutako Hauteskunde Batzordeko kideren batek kargu hori hartzen badu, utzi egin beharko du, eta bere lekua izendatutako ordezkoak hartuko du.

*65. artikulua.–* 1.– Hauteskunde Batzordeak ondorengo funtzioak izango ditu:

a) Hautesleen errolda eta hauteskundeetako egutegia onartzea.

b) Aurkeztutako hautagaiak izendatzea eta argitaratzea.

c) Hauteskunde-mahaia izendatzea.

d) Hautetsiak zein diren izendatzea.

e) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak, eta eskaerak ebaztea, eta hauteskunde-mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekurtsoak ere bai.

f) Hauteskundeak burutzeari eta bere emaitzei zuzenean eragiten dion edozein auzi.

2.– Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean Hauteskunde Batzordeak hartzen dituen erabakien aurka egin ahal izango da.

*66. artikulua.–* Hauteskunde Batzordeak, hautagai izango ez diren hautesleen artean zozketa egin eta gero, hiru kidek osatutako Hauteskunde Mahaia izendatuko du; eta ordezkoen kopuru baliokidea ere bai. Lehendakaria eta idazkaria kiderik zaharrena eta gazteena izango dira, hurrenez hurren.

*67. artikulua.–* 1.– Hauteskunde Mahaiak ondorengo funtzioak izango ditu:

a) Bozketak behar bezala egitea bermatzea.

b) Boto-emaileak nortzuk diren, eta hautesleak direla egiaztatzea.

c) Emandako botoak baliozkoak diren ebaztea.

d) Bozketa bukatu eta gero botoak zenbatzea.

e) Bozketarekin zerikusia duen beste edonolako gairen inguruan erabakitzea.

*Artículo 63.–* El ejercicio de las funciones de la Junta Electoral tendrá una duración de cuatro años, sin perjuicio de que la Asamblea General pueda destituirla y nombrar otra antes de la conclusión de dicho periodo.

*Artículo 64.–* 1.– Los miembros de la Junta Electoral, así como los suplentes, serán elegidos por la Asamblea General, de entre los miembros de la Federación, en la última asamblea ordinaria que se celebre antes del inicio del proceso electoral conforme al procedimiento establecido en el correspondiente reglamento federativo. En ningún caso, se podrá admitir la designación directa por la Junta Directiva.

2.– Actuarán de presidente o presidenta y secretario o secretaria de la Junta Electoral el de mayor y menor edad respectivamente.

3.– En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral los que fueran a presentarse como candidatos; si esta condición recayese en alguno de los componentes de la Junta Electoral nombrada, deberá cesar y ocupar su lugar el suplente designado.

*Artículo 65.–* 1.– La Junta Electoral tendrá encomendadas las siguientes funciones:

a) Aprobar el censo de electores y el calendario electoral.

b) Proclamar y publicar las candidaturas presentadas.

c) Designar la mesa electoral.

d) Proclamar los candidatos electos.

e) Resolver las impugnaciones, reclamaciones, peticiones que se presenten y los recursos que se interpongan contra las decisiones de la mesa electoral.

f) Cualquier cuestión que afecte directamente a la celebración de las elecciones y a sus resultados.

2.– Las decisiones que adopte la Junta Electoral serán impugnables ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

*Artículo 66.–* La Junta Electoral, previo sorteo entre los electores que no vayan a ser candidatos, designará una Mesa Electoral compuesta por tres miembros, así como un número igual de suplentes, siendo su presidente y secretario el de mayor y menor edad respectivamente.

